

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

# Museoak ardatz kultural bezala: tradizioaren etorkizuna

JARDUNALDIA  
MAIATZA 18/2019  
2019KO MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

## 2019ko Museoen Nazioarteko Egunaren gai nagusia museoek euren komunitateetan eragile aktibo moduan dituzten eginkizun berriak izango dira, goiburuz honekin: *Museoak ardatz kultural bezala: Tradizioaren etorkizuna.*

Museoek gizartean duten eginkizuna aldatzen ari da. Euren burua berrasmutzen ari dira museoak etengabe, are interaktiboagoak izateko asmoz, bisitaria erdigunean jarrita, komunitateari begira, malgu, egokigarri eta mugikor. Ardatz kultural bihurtu dira, plataforma gisako jarduerarekin, non sormena ezagutzarekin konbinatzen den eta bisitariak eskura duten elkarrekin sortzea, partekatzea eta elkarri eragitea.

Eginkizun nagusiei eusten dieten aldi berean (biltzea, kontserbatzea, komunikatzea, ikertzea, erakustea), museoek euren praktikak eraldatu dituzte, zerbitzua ematen dieten komunitateetara hurbildu ahal izateko. Museoak kultura zentroi dagozkien eginkizunetan gero eta gehiago garatzen doazen neurrian, euren bildumak, historiak eta legatuak ohoratzeke modu berriak ere aurkitzen dituzte era berean. Hala, sortzen joan dira etorkizuneko belaunaldientzako esanahi berriak izango dituzten tradizioak, baita esangura ezezagun bat ere, gero eta anitzagoak diren bisitari garaikide globalentzat. Eraldatze horrek, museoetako teoriarik eta praktikan eragin sakona izango duelarik, museoetako profesionalak derrigortu egingo ditu orobat museoaren berezko balioa birpentsatzera eta euren lanaren izaera bera zehazten duten muga etikoak auzitan jartzera.

Aldi berean komunitatearentzako arreta-gune eta mundu-sarea osatzeko atal izanda, museoek euren tokiko komunitateen premiak eta ikuspegiak testuinguru globalera bihurtzeko plataforma bat eskaintzen dute.

Testuinguru horretan, Cristóbal Balenciaga Museoak jendeari zabaldutako hitzaldi bat aurkeztu du Museoen Nazioarteko Egunerako, gai horren inguruan gogoeta egiteko. Museoaren, komunitateen eta modaren arloan artean gaur egun gertatzen ari diren elkarreraginei buruzko ikuspegi orokor bat ematea da asmoa, oraingo hainbat esperientzia aztertuz, eta gonbidatutako hiru hizlariak eskaintzen dituzten ikuspuntu desberdinetatik abiatuta.

# Egitaraua

MAIATZA 18/2019

- 10:00 SARRERA  
Miren Vives, Cristóbal Balenciaga Museoko zuzendaria.
- 10:10 AMY DE LA HAYE  
*Pasio baten jomugak: modaren, komunitatearen eta museoaren oinarriak.*  
Hitzaldi honetan, modaren eta jantzien inguruko hiru erakusketatan egindako komisario lanaren oinarriak, eboluzioa eta esku hartzeak aztertuko dira. Inklusioa eta aniztasuna nabarmendu dira horietan, hizlariak eta sektoreko beste profesional batzuek elkarlanean egindako komisariotzan: *Streetstyle: From sidewalk to catwalk* (Victoria & Albert Museum, 1994); *Cabinet Stories* (2016) eta *Gluck: Art & Identity* (Brighton Museum, 2017).
- 11:00 IGOR URIA  
*Cristóbal Balenciaga Museoaren bilduma: Ondaretik sorkuntza berrira.*  
Walter Benjaminen iritziz, objektu hautatuak, erabiltzeko objektu izatetik askatuz gero, apropos sortutako sistema historiko berri batean sartzen dira: bere kabuz bizi den bilduma. Cristóbal Balenciaga Museoaren ikuspegitik, gogoeta bat osatu da objektuen eta denborako hainbat uneren arteko harremanaren inguruan: sorkuntza berrietan, lehenaldia sortzeko inspirazio bezala eta orainaldia ondare inspiratzaile bezala.
- 11:45 KAFERAKO ETENALDIA

## EGITARRAUA

12:15 JUDITH CLARK  
*Elkarrizketak Museoarekin.*  
Cristóbal Balenciaga Museoaren enkarguz egindako *Moda eta Ondarea* izeneko saileko proiektuak aztertuko ditu Judith Clarkek. Erakusketen sortzailearen eta erakundearen arteko truke gisa sortu ziren. Clarkek 2018an museoaren inguruan egin zituen esku-hartzeen analisia egingo du, eta horiek 2019an nola aldatu diren azalduko du; izan ere, bigarren erakusketaren bidez, beste hautaketa baten erakusketa komisariatatu ez ezik, hausnarketa egin nahi du aldi baterako erakusketaren eta horrek artxiboarekin duen harremanaren artean. Instalazioen inguruko hitzaldia izango da, horiek modaren museologiaren ikerketa eremu independentearen adibide baitira. Orobat, hizpide izango du nola zabaldu den esparru horren irismena, erakusketa enkarguen praktika berriei erantzuteko; izan ere, diseinu eszenikoaren eta instalazioen artearen mugen artean daude. Artisauekiko kolaborazioei buruz hitz egingo du, horrek bere lana aberastu ez ezik, horien tradizioak berrasmatu ere egiten baititu.

13:00 BISITA ERAKUSKETARA  
*Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea. Testuinguruak.*

# Hizlariak



AMY DE LA HAYE

Komisariotzako eta Janzkiaren Historiako irakaslea da eta Zuzendariondokoa University of the Arts London Centreko London College of Fashionen baitako Centre for Fashion Curationen. Moda eta janzkien erakusketetan komisario lanak egin izan ditu estatu eta eskualde mailako esparruetan eta moda-banaketako espazioetan. Horrez gain, Judith Clarkekin batera osatu zuten *Exhibiting Fashion: Before & After 1971* (Yale, 2010). Hark argitaratutako lanek artxiboen eta objektuen inguruko kontaktak eskaintzen dituzte, eta bizitako bizitzen testuinguruan aztertzen dituzte objektuak. 1991tik 1999ra xx. mendeko janzkien kontserbatzailea izan zen V&A museoan.



IGOR URÍA ZUBIZARRETA

Arte Ederretan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, Kontserbazio eta Zaharberritze espezialitatean. Espezializatzeko zenbait ikasketa egin zituen Deustuko eta Alcalá de Henaresko unibertsitateetan. *Curating Fashion and Dress* ikasketak burutu zituen Londresko International Training Course of V&A erakundearen. Une honetan, Arkitektura, diseinua, moda eta gizartea izeneko doktoretza egiten ari da Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan. Oraindik orain, Cristóbal Balenciaga Museoko Bilduma zuzendaria da 2014ko maiatzaz geroztik; aldeaz aurretik, erakunde berean Kontserbazio eta Erregistro Saileko Burua izan zen 2004. urtetik aurrera. Cristóbal Balenciaga Fundazioa sortu zenetik, hamabost urtez finkatzen joan den bildumaren erantzule eta ikertzaile lanetan aritu izan da. Ekinbide horretan, hainbat erakusketatan komisario lanak egin ahal izan ditu, besteak beste, gaur egungo *Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea: Testuinguruak* erakusketan.



JUDITH CLARK


Moda erakusketen komisarioa eta sortzailea da, eta, gaur gaurkoz, Moda eta Museologia irakaslea University of the Arts London-en: han, Moda Kontserbatzeko Masterrean eskolara ematen ditu eta Centre for Fashion Curation-eko zuzendarikidea da. Modaren Londresko lehenengo galeria esperimentalak ireki zuen Clarkek (1997-2002). Harrezkero, Clarkek janzkiari buruzko erakusketa garrantzitsuak komisariatu izan ditu honako leku hauetan: V&A (Londres), ModeMuseum (Anberes), Boijmans van Beuningen (Rotterdam), Palazzo Pitti (Florentzia), Palais de Tokyo (Paris), Simone Handbag Museum (Seul). 2012an, Frida Kahloren janzkiak instalatu zituen Mexiko Hiriko haren etxean. 2015ean, Louis Vuittonen La Galerieko inaugurazio-erakusketa komisariatu eta diseinatu zuen Asnieresen. Barbican Art Galleryk komisariatuta, haren *The Vulgar: Fashion Redefined* erakusketa Vienako Neguko Jauregira iritsi zen, eta Hasseltekoko ModeMuseumera 2017ko irailean. *Femininities. Guy Bourdin* Maison Chloen ikusi ahal izan zen 2017ko uztailean, Parisko Modaren Astearen barruan. 2018an eta 2019an, Cristóbal Balenciaga Museoarekin lankidetzan aritu da *Cristóbal Balenciaga: Moda eta Ondarea* izeneko seriaren proiektuetan. Janzkiak erakustearekin lotutako kontuen inguruko hitzaldiak ematen ditu Clarkek nazioarte mailan.

Lankide izan dugu Centre for Fashion Curation  
at London College of Fashion, University of the Arts London

# B

## CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria - Gipuzkoa - España  
T 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km  
Bilbao — 81km  
Donostia/ San Sebastián — 25km  
Iruña-Pamplona — 97km  
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS  
43° 18'6.92" N  
2° 12' 18.77" W

